

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko martxoaren 12an aurkeztuko du

Kimsooja: *Hariaren ibilbideak*

Kimsooja

Hariaren ibilbideak

- Datak: 2015eko martxoaren 12tik uztailearen 5ra
- Komisarioa: Alvaro Rodriguez Fominaya
- Film & Video aretoa (103)

Guggenheim Bilbao Museoak, 2015eko martxoaren 12tik uztailearen 5era, Kimsoojaren *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*) lana aurkeztuko du lehen aldiz Espainian. Museoaren Film & Video aretoan egiten den laugarren erakusketa da. Aretoa 2014. urtean inauguratu zen eta bideoarteko, bideoinstalazioko eta irudia mugimenduan darabilten lanak erakusten dira bertan.

Hariaren ibilbideak (2010-) izeneko lana hainbat diziplina jorratzen dituen Kimsooja (Daegu, Hego Korea, 1957) artista kontzeptualak 16 mm formatuan egindako hainbat filmek osatzen dute. Sei kapituluko proiektu honetan ehungintzaren jarduera munduko leku desberdinetan aztertzen du. Filmak hiru kontinente diferentetan grabatu dira eta hauetan ikus daiteke eskualde bakoitzeko ehungintzaren kulturaren eta herri horren artean dagoen lotura estuarekiko, genero-erlazioekikon, arkitekturarekiko, naturarkiko eta nekazaritzarekiko artistak duen interesa. Narratibarik gabeko film hauek poesiaren eta antropologia bisualaren arteko muga ezagutzan murgiltzera gonbidatzen dute ikuslea.

Instalazioa artistak berak prestatu du Guggenheim Bilbao Museorako hiruki formako antolaketa osatuz. Proiektuaren sei kapituluetatik aurreneko hirurak erakutsiko ditu, Perun, Europan eta Indian, hurrenez hurren, grabatuak. 2010ean grabatu zuen lehen kapituluak Peruko ehungintzako kultura oparoa erakusten du, Peruko Andeetako inken Haran Sakratutik hasi eta Taquile uharteko herrixketaraino. 2011n grabatutako bigarren kapituluak Belgikako Brujasen, Kroaziako Lepoglava, Pag eta Hvar-en, eta Italiako Brano-n ehoziri-lana eskuz nola egiten den erakusten du, baita Frantzia iparraldeko Calais hiriko parpailak egiteko industria-fabrikazioa ere. Parpailak egiteko Europako tradizioen irudi hauek, egitura arkitektonikoak erakusten dituzten beste batzuekin batera eskaintzen dira, besteak beste, Kutná Hora-ko (Txekiar Errepublika) Sedlec-eko Hezurtegia, Parisko Eiffel Dorrea, Milango katedrala eta Granadako Alhambra eta bertako arte islamikoko apaindura-motiboak ikus daitezke. Hirugarren kapitulua 2012an grabatu zuen Indian. Bertan, tindaketen tradizioa, puntua, bordatua, estanzazioa eta tatuajea erakusten dira, Gujarat estatuko komunitate nomaden etxebizitza iragankorren eta kokagune arkeologikoen irudiekin nahastuak. Indiako arkitekturaren bi elementu adierazgarri ere ikus daitezke bertan: Modhera-ko Eguzkiaren Tenplua eta Putzu mailakatua, Ahmedabad hiriaren inguruan.

Hariaren ibilbideak erakusketan artistak munduaz duen ikuspegia erakusten da, gizakia eta herria estuki lotzen dituen ikusmen-esperientzia moduan azalduz. Seriea osatuko duten hurrengo hiru kapituluetan Txinako Miao, Tong eta Yi gutxiengoen, eta Ipar Amerikako eta Afrikako tribu indigenen gaiak jorratuko dira.

Kimsoojak giza izaerari lotutako gaiak aztertzen ditu, hala nola, nomadismoa, migrazio-mugimenduak, pertsonen arteko harremanak eta emakumeak gizartean duen papera. Halaber, estetikaren eta politika globalaren arteko erlazioaren inguruan egiten duen gogoetan artistak ikuslea inplikatzeko du. Gai horiek guztiak diziplina anitzeko bere praktika artistikoan azaltzen dira. Praktika horren barne hartzen ditu, argia eta soinua erabiliz, elkarren artean lotuta dauden kokapen zehatzeko instalazioak, eskultura, marrazkia, argazkia, bideoa eta performancea. Instalazio horietan askotan *bottari* izeneko fardel korear tradizionala ipintzen du metafora-baliabide gisa. Orratza eta ispilua bezala, *bottari* hori Kimsoojaren lanaren ezaugarrietako bat bihurtu da.

Biografia

Diziplina asko jorrotzen dituen Kimsooja artista kontzeptuala nazioartean ospe handia lortu du. Daegun (Hego Korea) jaio zen 1957an Kimsooja—ehungintzako industriagatik ezaguna da hiri hau—, eta gaur egun New Yorken bizi da eta bertan lan egiten du. Seulen artea eta Parisen litografia ikasi ondoren, New Yorkeko P.S.1 Contemporary Art Center-en eta Parisko École Nationale Supérieure de Beaux-arts eskolan artista egoiliarra izan zen. 1980ko hamarkadaren hasieran bere arte-jarduerak eta bere ehungintzako lana parean joan ziren. Beranduago, bere obrak eboluzionatu egin zuen 1999an *Emakume orratza (A Needle Woman)* performancea taxutu arte. Aurreko lanen jarraipen gisa, Hariaren ibilbideak lana gizatasuna, natura eta kosmogonia elkarri lotzen dituen poema epiko bat da, bizitzaren performance bat osatuz.

Seul 1988an bakarkako lehen erakusketa egin ondoren, Kimsoojaren lana mundu osoko espazio eta museo askotan ikusi ahal izan da. Honako leku hauetan egindako bakarkako erakusketak nabarmendu behar dira: Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía museoan; New Yorkeko P.S.1/MOMAn; Washington D.C.ko Hirshhorn Museum-ean; Berna-ko Kunsthalle-n; Vienako Kunsthalle-n; Liechtensteingo Kunstmuseum-en; Lyongo arte garaikidearen museoan; Dusseldorf-eko Museum Kunstpalast-en; Milango PACen; Atenasko arte garaikidearen museo nazionalan; Seulgo Plateau Museum of Art-en; Koreako arte garaikideko museo nazionalan; eta, duela gutxi, Vancouver Art Gallery-n. Kimsoojak Hego Korea ordezkatu zuen Sao Pauloko 24. Bienalean eta Veneziako 55. Bienaleko Hego Korearen pabiloian. Veneziako Bienaleko 48., 49., 51. eta 52. edizioetan hartu du parte, baita arteko nazioarteko hogeita hamar bienal eta trienal ingurutan ere. Bere lanen bitartez eskuratutako aitopenen eta sarien artean honakoak aipatu behar dira: Seulgo Plateau Museum-en *Best Show of the Year 2000* saria, *Kimsooja-A Needle Woman Who Weaves the World* izeneko erakusketagatik; Whitney Museum of American Art museoak 2002an emandako Artist of the American Art saria; Anonymous Was A Woman Foundation Award saria, 2002an; New Yorkeko Foundation for Contemporary Art fundazioak 2007an emandako Visual Arts Grant saria; eta John Simon Guggenheim Memorial Foundation Fellowship saria, 2014an.

Film & Video (103 aretoa)

Museoko Film & Video aretoa 2014an inauguratu zen bideoarteko, bideo-instalazioko eta irudia mugimenduan darabilten lanak aurkezteko. Lanak Guggenheim Museoetakoak edo nazioarteko beste bilduma batzuetakoak izan daitezke. Iaz nazioartean ospea duten hiru artistaren ikus-entzunezko piezak erakutsi ziren. Aretoa martxoan inauguratu zen Christian Marclay-ren *Erlojua (The Clock)* instalazioarekin; ekainean, Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak (The Visitors)* lana

aurkeztu zen; eta 2014ko urritik 2015eko martxora espazio honetan Rineke Dijkstra-ren *The Krazyhouse*(*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee, Liverpool, UK*) lana egon zen ikusgai.

Topaketa Kimsoojarekin

Hariaren ibilbideak lanaren aurkezpena dela eta, Kimsooja artista korearrak jendearekin topaketa batean hartuko du parte. Topaketa horretan Alvaro Rodriguez Fominaya erakusketaren komisarioarekin solasaldia egingo da.

Lekua eta ordua: Entzungela, 18:30

Aldibereko itzulpena: ingelesa-gaztelania

Sarrerak doan. Txarteldegietan eta web orrian jaso

Azaleko irudia

Kimsooja

Hariaren ibilbideak – II. kapitulua (Thread Routes – Chapter II), 2011

16 mm-ko filma, HD bideora transferitutakoa, soinuduna, 23 min 40 s

Hauen eskaintza: La Fábrica, Madril; Galerie Kewenig, Mallorca eta Berlin; Galerie Tschudi, Zuoz;

Galleria Raffaella Cortese, Milan; eta Kukje Gallery, Seul

© 2011 Kimsooja Studio

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Kimsooja. Hariaren ibilbideak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Hariaren ibilbideak – I. kapitulua (Thread Routes – Chapter I), 2010
16 mm-ko filma, HD bideora transferitutakoa, soinuduna, 29 min 31 s
Hauen eskaintza: La Fábrica, Madril; Galerie Kewenig, Mallorca eta Berlin; Galerie Tschudi, Zuoz; Galleria Raffaella Cortese, Milan; eta Kukje Gallery, Seul
© 2010 Kimsooja Studio



Hariaren ibilbideak – II. kapitulua (Thread Routes – Chapter II), 2011
16 mm-ko filma, HD bideora transferitutakoa, soinuduna, 23 min 40 s
Hauen eskaintza: La Fábrica, Madril; Galerie Kewenig, Mallorca eta Berlin; Galerie Tschudi, Zuoz; Galleria Raffaella Cortese, Milan; eta Kukje Gallery, Seul
© 2011 Kimsooja Studio



Hariaren ibilbideak – II. kapitulua (Thread Routes – Chapter II), 2011
16 mm-ko filma, HD bideora transferitutakoa, soinuduna, 23 min 40 s
Hauen eskaintza: La Fábrica, Madril; Galerie Kewenig, Mallorca eta Berlin; Galerie Tschudi, Zuoz; Galleria Raffaella Cortese, Milan; eta Kukje Gallery, Seul
© 2011 Kimsooja Studio



Hariaren ibilbideak – III. kapitulua (Thread Routes – Chapter III), 2012
16 mm-ko filma, HD bideora transferitutakoa, soinuduna, 17 min 35 s
Hauen eskaintza: La Fábrica, Madril; Galerie Kewenig, Mallorca eta Berlin; Galerie Tschudi, Zuoz; Galleria Raffaella Cortese, Milan; eta Kukje Gallery, Seul
© 2012 Kimsooja Studio



Kimsooja, 2010
Erretratua, Tate Modern Artist Discussion eztabaidan parte hartzen zuela
Argazkia: Simon Patterson

